

Ezpalak

Jon Torner

Lloyd, MacKean, Roca... komikigile ezagunek bisitatuko dute Getxo



DAVID LLOYD, Dave McKean, Paco Roca eta Mark Buckingham etorriko dira, besteak beste, Getxoko Komiki eta Manga Azokara. Zortzigarren edizioa hilaren 27an, 28an eta 29an egingo da, bi gunetan bananduta: komikiari eskainitako karpa Areetako Geltokia plazan kokatuko dute; mangaren gune berria, aldiz, Erromoko Santa Eugenia plazan. Orotara 100 stand baino

gehiago jarriko dituzte bi lekuetan. Komiki-dendek, aldizkari eta fanzineek, argitaletxeek... sektoreko eragile guztiek izango dute lekua erakusketak, tailerrak eta hitzaldiak eskainiko dituen edizioan. Aurten Purita Campos ilustratzailea eta Juan Carlos Eguillor artista omenduko dituzte. [www.salondelcomicdegetxo.net]

Abian da Lekeitioko Euskal Zine Bileraren 32. edizioa

HILAREN 24AN HASI eta 28an amaituko da Lekeitioko 32. Euskal Zine eta Bideo Bilerak. Guztira 35 lan lehiatuko dira Urrezko Antzara eskuratzeko, bi sail nagusitan banatuta: profesionalak eta amateurak. Lanen artean, hiru arabar, hamabi gipuzkoar eta hogeitaz bizi daude eta Ikusgarri zinema aretoan eskainiko dituzte guztiak. Euskara hutsez egiten den zinemaldi bakarra da Lekeitiokoa. [www.bideobilera.com]

Xabier Altubek irabazi du Arabako Foru Aldundiaren 38. Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketa, *Idazkera tangentea* lanarekin. Ernestina de Champourcin (poesia) eta Becerro de Bengoa (saiakera) sariak berriz, Carlos Santiesteban (*Hitzak eta ad-hitzak*) eta Patxi Juaristirentzat (*Maiatzeko artoaren ardura eta bost seme-alaba dauzkana ez dago musika bila*) izan dira.

● Xabi Borda elkarrizketatu du *Garak, Gulliverren lokarriak* (Elkar) poesia liburuaren (Elkar) harira: «Poema hauen arrisku handiena da soberako transzendentzian erortzea, batzuetan nik ere faltan botatzen dut umore pixka bat, bai irakurtzen dudanean bai idazterakoan ere. Baina umorea gauza subjektiboa da, zuk umorez idatzi duzu baina beste batek ez du horrela ulertuko edo ez du umorerik ikusiko hor (...) Solaskide aldatuta, adibidez nire kasuan hika neska bati jarrita, ez naiz ari edozein irakurlerentzako zuzenean, irakurleari tonu intimo horregatik gehiago emango dio *vouyeur* sentsazioa».

● Iban Zaldua idazleak *Berrian*: «Duela gutxi, *Diario Vasco*ko elkarrizketa batean, Unai Elorriagak 'errespetua' eskatzen zien kritikoei bere azkeneko nobelarentzat, hura idazten lau urte igaro dituen ezker. Igeltsero batek gure bainu-gela eta sukaldea konpontzen lau hilabete pasatu, obra amaitu eta txapuz dantesko bat egin badigu, berarekin haserretzeko eta haren familia guztiaz gogoratzeko eskubidea daukagu noski. Baina idazle batekin ezin halakorik gertatu, mesedez: idazleok izaki bereziak gara, Parnaso mendiko biztanle dohatsuak, Musek bedeinkatutakoak. Kontuz gero...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

www.lailaerretegia.com

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@lailaerretegia.com